



**IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN SEKTORE
PUBLIKO INSTITUZIOLEAN EUSKARAREN
ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.
BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Iruñeko Udalak, 2019ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Iruñeko Udalean eta haren sektore publiko instituziolean euskararen erabilpena arautzen duen Ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan aginduei jarraikiz, erabaki hori 2019ko 248. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 19koan, argitaratu zen, eta hasiera batez onetsitako Ordenantza jendaurrean paratu zen Kultura eta Berdintasuneko Alorreko Administrazioan eta Udaleko oholean, espedienteak jendaurreko tramitea betez 30 egun balioduneko epean.

Behin jendaurreko aldi hori iraganda, 2020ko martxoaren 5eko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez hasiera batean onetsitako testuari egindako alegazioei buruz ebatzi da, alegazioetako bat baietsita, eta Ordenantzaren testua behin betiko onetsi da, baietsitako alegazioaren ondoriozko idazketa berria hasierako testuari gehituta; horiek horrela, xedatzen da, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin, behar diren ondorioak izan ditzan.

**APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA ORDENANZA
REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN DEL EUSKERA
EN EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA Y SU
SECTOR PÚBLICO INSTITUCIONAL**

El Pleno del Ayuntamiento de Pamplona, en sesión celebrada el 22 de noviembre de 2019, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de la utilización del euskera en el Ayuntamiento de Pamplona y su sector público institucional.

En cumplimiento de las prescripciones contenidas en el artículo 325.1.b) de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Navarra, número 248 de fecha 19 de diciembre de 2019, y la Ordenanza aprobada inicialmente quedó expuesta en la Administración del Área de Cultura e Igualdad y en el tablón municipal, sometiéndose el expediente al trámite de exposición pública durante el plazo de 30 días hábiles.

Transcurrido dicho periodo de exposición pública, mediante acuerdo de Pleno de 5 de marzo de 2020 se han resuelto, estimando una de ellas, las alegaciones formuladas al texto aprobado inicialmente y se ha procedido a la aprobación definitiva del texto de la Ordenanza referida, incorporando al texto inicial la nueva redacción resultante de la alegación estimada, tras lo que se dispone, de conformidad con el artículo 326 de la Ley Foral de la Administración Local, la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra a los efectos oportunos



**IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN SEKTORE
PUBLIKO INSTITUZIONALEAN
EUSKARAREN ERABILPENA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA.**

Iruñeko Udalak 1997an onetsi zuen Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen Ordenantza.

Zioen azalpenak oinarri zituen Espainiako Konstituzioa, zeinak “Espainiako hizkuntzek daukaten kultur ondarea bereziki errespetatzea eta babesteko manua egiten baitie botere publikoei”, eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, “xede duena herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta haren berreskurapena eta garapena begiratzea.”

Marko horretan, aipatutako Zioen Azalpenak arau-testua zenbait helburu lortzera bideratzen zuen.

Lehenik, asmoa zen “herritarrek Administrazio Publikoekin euskaraz egiteko duten eskubidea bermatzea”; bigarrenik, aurreikusten zuen “lanpostu batzuetan nahitaezkoa izaten ahal dela euskaraz jakitea eta gainerakoetan kontuan hartzen ahal dela”, eta kasu bakoitza aztertuko duen Batzorde baten bidez zehaztuko da zein lanpostuk bete behar dituzten betekizun horiek; hirugarrenik, arautzen zuen “euskarak Udalaren kanpoko irudian izan behar duen txertatze-maila”, eta, laugarrenik, hizkuntza sustatzeko neurri jakin batzuk garatzen zituen.

Ordenantzak lau aldaketa partzial izan zituen, helburu horien markoarekin bat, araua errealitate sozialera egokitze aldera.

**ORDENANZA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN
DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO DE
PAMPLONA Y SU SECTOR PÚBLICO
INSTITUCIONAL.**

El Ayuntamiento de Pamplona aprobó en 1997 la Ordenanza reguladora de la utilización y del fomento del vascuence en el ámbito del Ayuntamiento de Pamplona.

Su Exposición de Motivos se fundamentaba en la Constitución Española, que “encomienda a los poderes públicos el especial respeto y protección al patrimonio cultural que suponen las lenguas de España” y en “la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, que tiene como objetivo el amparo del derecho de la ciudadanía a conocer y usar el vascuence y proteger la recuperación y desarrollo del mismo.”

En ese marco, la citada Exposición de Motivos orientaba el texto normativo hacia varios objetivos.

En primer lugar, se pretendía “garantizar el derecho de la ciudadanía a dirigirse en vascuence a las Administraciones Públicas”; en segundo lugar, preveía la posibilidad de que “en determinadas plazas sea preceptivo el conocimiento del vascuence y que en las demás sea valorado”, definiendo los puestos de trabajo concretos que se sujeten a estos requisitos a través de una Comisión que estudiara cada caso; en tercer lugar, regulaba “el grado de incorporación del vascuence en la imagen exterior municipal” y, en cuarto lugar, desarrollaba determinadas medidas de fomento del idioma.

La Ordenanza sufrió cuatro modificaciones parciales que, en el marco de los citados objetivos, fueron adaptando la norma a la realidad social.

2019an, Udalaren Osoko Bilkurak arau-testu oso eta berri bat onetsi zuen, "Iruñeko Udalaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen Ordenantza" izenburupean.

Arau berriaren Zioen Azalpenak zioenez, aurrekoaren helburu berberak zituen, baina xedapen-testuak esan gabe Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean zedarritutako eremu euskalduneko beste toki-erakundeetako bat gehiago bihurtzen zuen Iruñeko udalerria.

Hala da, izan ere, 18/1986 Foru Legeak bi eremuak argiro bereizten dituen arren, indarrean den Ordenantzak eremuok lausotzen ditu Iruña eremu euskalduneko hiri bihurtzen amaitzeko, eta, are, alderdi batzuetan eremu horretako araubidea ere gainditzen du. Hori horrela, esate baterako, Ordenantzak nahitaezko elebitasuna inposatzen du, oro har, komunikazioetan (3. artikulua) eta Udalaren irudian (7. artikulua). Aitzitik, Foru Legeak ez du alderdi horiei buruz ezer esaten eremu mistoa arautzean; are, eremu euskaldunetan ez du nahitaezkotzat jotzen komunikazio elebiduna, baizik eta ezartzen herritarrek bi hizkuntzetako bat hauta dezatela (11. eta 12. artikulua). Gauza bera gertatzen da Udalaren irudiarekin, non, besterik gabe, Ordenantzak beretzat hartu baitu errotulazio orokor eta erabat elebiduna, zeina Foru Legeak eremu euskaldunerako ezartzen baitu, baina ez Iruña dagoen eremu mistorako.

Langileen arloan, Ordenantza berriro doa Foru Legean eremu mistorako araututakoaz harago; izan ere, lege-xedapenak eremu euskaldunerako aitortzen duen eskubidea hartzen du abiapuntu, hau da, herritarrek arreta bi hizkuntzetan jasotzeko eskubidea. Eremu mistoan, baina, eskubide hori ez da existitzen, eta hortaz, Iruñeko herritarrek

En el año 2019, el Pleno del Ayuntamiento aprobó un nuevo texto normativo íntegro bajo la denominación "Ordenanza reguladora de la utilización y del fomento del euskera en el ámbito del Ayuntamiento de Pamplona y su sector público institucional".

Esta nueva regulación, según su Exposición de Motivos, compartía los mismos objetivos que la anterior, si bien su texto dispositivo comportaba la tácita conversión del municipio de Pamplona en una más de las entidades locales de la zona vascófona delimitada en la Ley Foral 18/1986, del Euskera.

Así es, ya que, si bien la citada Ley Foral 18/1986 mantiene una clara distinción entre ambas zonas, la Ordenanza actualmente vigente las difumina para acabar convirtiendo a Pamplona en una ciudad de la zona vascófona e incluso, en varios aspectos, más allá del régimen de ésta. Así, por ejemplo, la Ordenanza impone el bilingüismo obligatorio y general en las comunicaciones (artículo 3), y en la imagen municipal (art.7), mientras que la Ley Foral nada dice sobre estos aspectos al regular la zona mixta e incluso en la zona vascófona no obliga a la comunicación bilingüe, sino que prevé que la ciudadanía elija una de las dos lenguas (artículos 11 y 12). Lo mismo ocurre con la imagen municipal, donde, sin más, la Ordenanza ha asumido la rotulación general y absoluta en ambos idiomas que la Ley Foral impone para la zona vascófona, pero no para la mixta, en la que Pamplona está encuadrada.

En materia de personal, la Ordenanza también ha ido más allá de lo regulado en la Ley Foral para la zona mixta al partir del derecho que la disposición legislativa recoge para la zona vascófona, que no es otro que el derecho de la ciudadanía a ser atendida en ambos idiomas, mientras que, en la zona mixta, tal derecho no existe de tal

eskubidea dute Udalari bi hizkuntzetan zuzentzeko, baina ez hautatutako hizkuntzan harrera edukitzeko eskubidea. Arauaren desegokitasun horrek bide ematen dio indarrean den Ordenantzari aurreikusteko lanpostu ugari bete behar direnean euskarazko titulazioa dutenen artean eginen dela, eta, baita ere, lan-deialdi guztietan ezartzeko euskararen ezagutzaren balorazioa, merezimenduen % 14 izatera iris daitekeena.

Are, euskara aurretik jakiteko betekizun hori zabaltzen da Udalak kontratatutako enpresetako lanpostuetara.

Azken arlo honetan egiten den erregulazioa nekez bateragarria da Espainiako Konstituzioak funtzio publikora sartzeko aukera-berdintasunerako berme gisa ezarritako berdintasun-printzipioarekin, eta, edozein kasutan, Foru Legeak ezartzen duen hizkuntza-zonifikazioaren aurkakoa da, zeina, aldi berean, errealitate soziolinguistikoaren ondorio baita, lege-xedapen foralak berariaz ezartzen duenez.

Ondorioz, indarrean den Ordenantzak Iruñeko errealitatearekin bat ez datorren sistema bat osatu du, eta horrek berekin dakar berdintasun-printzipioa baztertea funtzio publikora sartzeko, eta are, enpresa pribatuetara sartzeko ere.

Ordenantza berri honen testuak ia osorik berreskuratzen du orain arte aipatu den Ordenantza onetsi arte indarrean zegoen arauaren testua; esan bezala, indarrean egon zen aldiari errealitate soziolinguistikora egokitzen joan zen. Ordenantza honetan euskararen erabileraren inguruan egiten den erregulazioa zehazki bat dator Foru Legearen printzipio eta xedapenekin, baita 103/2017 Foru Dekretuan onetsita hura

manera que la ciudadanía de Pamplona tiene derecho a dirigirse al Ayuntamiento en ambos idiomas, pero no a ser atendida en el idioma que elijan. Esta inadecuación normativa da lugar a que la Ordenanza vigente prevea la provisión de multitud de puestos de trabajo entre personas que tienen la titulación en euskera, además de la valoración de su conocimiento en todas las convocatorias de personal, que puede alcanzar hasta el 14% de los méritos.

Incluso se extiende este requisito de conocimiento previo del euskera a los puestos de trabajo de las empresas contratadas por el Ayuntamiento.

La regulación en esta última materia es difícilmente compatible con el principio de igualdad de acceso a la función pública que la Constitución Española impone como garantía de la igualdad de oportunidades, y, en todo caso, resulta contraria a la zonificación lingüística establecida en la Ley Foral que es, a su vez, el resultado de la realidad sociolingüística, como la propia disposición legislativa foral expresamente establece.

La Ordenanza vigente, en consecuencia, ha configurado un sistema que no responde a la realidad de la ciudad de Pamplona y tal evidencia conlleva el sacrificio del principio de igualdad en el acceso a la función pública e incluso al empleo en las empresas privadas.

El texto de esta nueva Ordenanza recupera casi en su integridad la redacción de la norma que estuvo vigente hasta que se aprobó la hasta ahora mencionada que, como se ha dicho, fue adaptándose durante su vigencia a la realidad sociolingüística. La regulación que en ella se hace del uso del euskera responde fielmente a los principios y disposiciones de la Ley Foral y también de su reglamento de desarrollo, aprobado por

garatzeko erregelamenduarekin ere, eta herritarren eskubideak bermatzen ditu, betiere eremu mistoari dagozkion baldintzekin bat.

Horrela, arauak ez du elebitasun osoa inposatzen administrazioen arteko harremanetan, eta, ostera, hizkuntza baten edo bestearen erabilera hartzailearen nahien arabera izan da; halaber, Udalari euskaraz zuzentzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea bermatzen da, baina berekin ekarri gabe hizkuntza dakitenentzat bakarrik mugatutako ezin konta ahala lanpostu sortzea; orobat, elebitasuna Udalaren irudian arautzen da modu orekatuan eta bereizketa eginez informazioaren jomugaren arabera, eta ez inolako bereizketarik egin gabe, indarreko arauak egiten duen bezala; era berean, doitzen da euskararen presentzia publizitate-iragarkietan, guztizkoaren % 25era bitarte iritsita, erabilera-ehunekoa gaindituz baina indarreko arauak ezartzen duen % 100eko presentzia nahitaezkoa saihestuz; halaber, lanpostuak betetzean euskararen balorazioa hautazkoa izatea ezartzen du, indarreko arauak ezartzen duenaren kontrara, horretan nahitaezkoa baita, eta, azkenik, euskararen ezagutza behar duten lanpostuak egonen direla aurreikusten da, bai, baina ez oro har.

Arauzko testu hau erabat bat dator 103/2017 Foru Dekretuak eremu mistorako diseinatutako araubidearekin, bertan baitago Iruña; era berean, testuan idatzitakoa ados dago gai honen inguruan Nafarroako Kontseiluak eta Justizia-azuztegiek ezarritako doktrinarekin.

Iruñeko Udalak hiriko berezko bi hizkuntzetako bat jotzen du euskara. Hori horrela, konpromisoa hartzen du euskara sustatze aldera neurriak hartzeko, euskara hizkuntza gutxitua eta, zalantzarik gabe,

Decreto Foral 103/2017, y garantiza los derechos de la ciudadanía en las condiciones en las que debe hacerse en la zona mixta.

De esta manera, la norma no impone el bilingüismo completo en las relaciones interadministrativas sino que hace depender el uso de uno u otro idioma de la voluntad de la persona destinataria; también garantiza el derecho a dirigirse en euskera al Ayuntamiento y a una respuesta en el mismo idioma, pero sin la correlativa creación de multitud de puestos de trabajo restringidos a quienes dominan el idioma; de igual manera se regula el bilingüismo en la imagen municipal de manera equilibrada distinguiendo según los destinos de la información y no de manera indiscriminada como lo hace la norma vigente; se adecúa la presencia del euskera en los anuncios publicitarios hasta un 25% del total, más allá incluso del porcentaje de uso, pero se evita la obligatoria presencia al 100% que impone la norma vigente; y configura como opcional la valoración del euskera en la provisión de los puestos de trabajo a diferencia de la norma vigente para la que es obligatoria, además de prever que efectivamente existan puestos que precisen el conocimiento del euskera pero no con carácter general.

Este texto reglamentario resulta plenamente acorde con el régimen diseñado por el D.F. 103/2017 para la zona mixta, en la que se ubica el municipio de Pamplona, y su redacción sigue también la doctrina del Consejo de Navarra y de los Tribunales de Justicia sobre esta materia.

El Ayuntamiento de Pamplona considera el euskera como una de las dos lenguas propias de la ciudad. Por ello se compromete a adoptar las medidas necesarias para su fomento, dada su condición de lengua

ondare kulturala baita, irauteko eta erabili ahal izateko laguntza berezia behar duena.

Iruñeko Udalak Ordenantza honetan aintzat hartzen du euskarari haren egoera soziolinguistikoarekin bat dagokion babesa ematearen alde gizarteak erakusten duen borondatea.

I. KAPITULUA. ORDENANTZAREN APLIKAZIO ESPARRUA

1. ARTIKULUA. Ordenantza hau Iruñeko Udalean aplikatuko da, eta halakotzat hura bera hartuko da, zentzu hertsian, baita haren menpeko erakunde autonomoak ere.

2. ARTIKULUA. Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte, edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan ordenantza honen IV. kapitulua aplikatuko da.

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

3. ARTIKULUA. Iruñeko Udalak beste administrazio publikoei igortzen dizkien agiri, jakinarazpen eta adierazpen administrazioak, orokorrean, ele bitan idatziko dira, baldin eta administrazio horiek eskualde euskaldunean badira edo berorietan euskara ere hizkuntza ofiziala bada.

4. ARTIKULUA. Beste edozein eskualdetako administrazioei, berriz, ele bitan egiten die Iruñeko Udalak, betiere beste administrazioak gisa horretan eman badio hasiera harremanari.

minorizada e indudable patrimonio cultural que precisa de una especial atención para su mantenimiento y utilización.

El Ayuntamiento de Pamplona se hace eco en la presente Ordenanza de la voluntad social favorable a la protección del euskera con arreglo a su realidad sociolingüística.

CAPÍTULO I. DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN DE LA ORDENANZA

ARTÍCULO 1. La presente Ordenanza será de aplicación en el Ayuntamiento de Pamplona, entendiendo como tal el mismo en sentido estricto y los Organismos Autónomos de él dependientes.

ARTÍCULO 2. En aquellos servicios de competencia municipal, prestados por tercero en utilización de cualquier fórmula de gestión, será de aplicación el capítulo IV de la presente Ordenanza.

CAPÍTULO II. DE LAS RELACIONES INTERADMINISTRATIVAS

ARTÍCULO 3. Los documentos, notificaciones y comunicaciones administrativas que el Ayuntamiento de Pamplona dirija a otras Administraciones Públicas sitas en la zona vascófona o en comunidades en las que el euskera sea también lengua oficial, se redactarán con carácter general en forma bilingüe.

ARTÍCULO 4. Cuando el Ayuntamiento de Pamplona se dirija a otras Administraciones sitas en cualquier otra zona utilizará igualmente la forma bilingüe siempre que sea la otra Administración la que haya iniciado la relación de esta forma.



III. KAPITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK

5. ARTIKULUA. Herritarrek Iruñeko Udalarik gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko eskubidea dute.

6. ARTIKULUA. Idatziz, Administrazioari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei ele bitan erantzuten zaie. Horretarako, euskara-itzultzaileen zerbitzuak erabiliko dira, eta horiek emanen dituzte bertsio ofizialak, bai herritarren eskaerara gaztelaniaz, bai jakinaraziko den udal-erabaki edo -erantzunarena.

7. ARTIKULUA. Ahoz, Administrazioari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei hizkuntza horretan egiten zaie harrera. Udalak neurri egokiak hartuko ditu helburu hori erdiesteko.

IV. KAPITULUA. UDALAREN KANPO IRUDIA

8. ARTIKULUA. Iruñeko Udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu herritarrei orokorrean egiten dienean. Hartara, ele bitan egiten dira:

- a) Bandoak, ediktuak, kartelak eta informazio-plakak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, orriburuak eta gisakoak.
- c) Eraikin, karrika eta bide publikoetako errotulazioa.
- d) Udal-egoitza eta -bulegoetako errotulazioa, Udalaren ibilgailuena, eta langileen arropa eta uniformeak.
- e) Interes turistikoa duten tokietako seinaleztapena, etzana nahiz zutikakoa izan, zerbitzuen kontrolekoa, eta bide seinaleak.
- f) Udalak herritarren eskura jartzen dituen agiriak eta ereduak, administrazio

CAPÍTULO III. DE LOS DERECHOS DE LOS CIUDADANOS

ARTÍCULO 5. La ciudadanía tiene derecho a dirigirse al Ayuntamiento tanto en castellano como en euskera

ARTÍCULO 6. A la ciudadanía que elija dirigirse por escrito a la Administración en euskera, se les responderá en forma bilingüe. Se utilizará para ello los servicios de traducción de euskera que dará las versiones oficiales en castellano de la solicitud realizada y del acuerdo o respuesta municipal que se ha de comunicar.

ARTÍCULO 7. A quién se dirija oralmente a la Administración en euskera, se le atenderá en esta lengua. El Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas para alcanzar dicho objetivo.

CAPÍTULO IV. DE LA IMAGEN EXTERIOR MUNICIPAL

ARTÍCULO 8. El Ayuntamiento de Pamplona utilizará el castellano y el euskera cuando se dirija de modo general a la ciudadanía. Así, serán bilingües:

- a) Los bandos, edictos, carteles y placas informativas.
- b) Los sellos, tampones, logotipos, membretes y elementos similares.
- c) La rotulación de edificios, calles y espacios públicos
- d) La rotulación de dependencias y oficinas municipales del parque móvil municipal, ropas y uniformes de empleados.
- e) La señalización tanto horizontal como vertical de lugares de interés turísticos, control de servicios e indicadores de tráfico.
- f) Los documentos y modelos que el Ayuntamiento pone a disposición de la



prozedura guztiez argibideak eman beharrez.

9. ARTIKULUA.

1.- Afixetako elementu guztiak ele bikoak izanen dira.

2.- Udalaren jarduketez argibideak emateko edo propaganda egiteko liburuxkak ele bitan eginen dira herritar guztientzat badira.

3.- Kultura, kirol, eta abarren arloko jarduera baten berri emateko liburuxketan, esku-programetan, katalogoetan eta abarretan, hizkuntzak honela erabiliko dira: a) Argibide orokorrak (lekua, data, ordua, e.a.) ele bitan joanen dira. b) Egin beharreko jarduera batik bat hizkuntzaren ahozko erabilpenean oinarritzen bada (mintzaldiak, antzerkia, poesia, ikus-entzunezkoak...), hura azaltzeko elementuetan, hala nola esku-programetan eta katalogoetan, jarduera zer hizkuntzatan eginen den, huraxe erabiliko da. c) Jarduera beste hizkuntza-mota batzuen bitartez gauzatzen bada, hau da, bisuala, musikala, plastikoa, etab. bada, argibideak bi hizkuntzetan emanen dira.

10. ARTIKULUA. Publizitatea komunikabideetan.

a) Prentsan Udalak argitaratzen dituen udal iragarkiei dagokienez, euskaraz izanen dira haietako % 25, gutxi gorabehera.

b) Ikus-entzunezko komunikabideetan –irratian eta telebistan, batez ere– publizitatea bi hizkuntzetan eginen da, halako proportzioan non, gutxi gorabehera, sartuko diren lau iragarki edo "spot"etatik bat euskaraz izanen den.

ciudadanía en orden a informar sobre los diferentes procedimientos administrativos.

ARTÍCULO 9.

1.º Los carteles serán bilingües en todos sus elementos.

2.º Los folletos de información y propaganda de las actividades municipales serán bilingües cuando se dirijan a la ciudadanía en general.

3.º En los folletos cuyo objeto es anunciar una actividad de tipo cultural, deportivo, etc., programas de mano, catálogos, etc., las lenguas se utilizarán del siguiente modo: a) Los elementos de información general (lugar, fecha, hora ...) figurarán de modo bilingüe. b) Si la actividad a la que se refieren se basa fundamentalmente en la utilización oral del idioma (conferencias, teatro, poesía, audiovisuales, etc.) en los elementos explicativos de la misma como pueden ser programas de mano y catálogos, se utilizará el idioma en el que la actividad se vaya a realizar. c) Si la actividad se desarrolla a través de otro tipo de lenguajes: visual, musical, plástico, etc., la información se dará en los dos idiomas.

ARTÍCULO 10. Publicidad en los medios de comunicación.

a) La utilización del euskera en los anuncios municipales insertos en la prensa supondrá aproximadamente un 25% de los anuncios realizados.

b) La publicidad en los medios audiovisuales –radio y televisión fundamentalmente– se realizará en los dos idiomas, en la proporción aproximada de una cuña o spot en euskera por cada cuatro que se vayan a insertar.



11. ARTIKULUA. Argitalpenak.

Iruñeko Udalaren argitalpenak eta haren menpeko erakundeenak ele bitan eginen dira, interes orokorrekoak eta herritar guztientzat direnean, baita interes turistikoa edo hiriarendako izaera enblematiko edo sinbolikoa dutenean ere.

12. ARTIKULUA Udalaren komunikabideak.

Komunikabideen jabetasuna edo kudeaketa Udalari dagokionean (irratia, aldizkariak edo buletinak, eta abar) bi hizkuntzak neurri berean erabiliko dira komunikabidea identifikatzeko osagaietan, orrialdeko izenburuetan, datan eta sailetan, eta eduki guztien % 20, gutxi gorabehera, euskaraz emanen dira.

V. KAPITULUA. UDALAREN LANGILEAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDUA

13. ARTIKULUA. Udalaren plantilla organikoan zehaztuko da zer lanpostutan behar den euskaraz jakitea.

14. ARTIKULUA.

1. Udalaren plantilla organikoan zehaztuko da aurreko artikuluko lanpostu bakoitzean behar den euskara maila.
2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gauzatu da ordenantza honetako 19. artikuluan.
3. zenbakian ezarritakoa deusetan ukatu gabe.

15. ARTIKULUA.

- 1.- Lanpostu elebidunetan egiaztatu beharreko euskararen ezagutza-maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1, B2 edo C1 maila izanen da, betiere lanpostuaren ezaugarrien arabera.

ARTÍCULO 11. Publicaciones.

Las publicaciones del Ayuntamiento de Pamplona se realizarán de modo bilingüe cuando sean de interés general y se dirijan al conjunto de la ciudadanía, tengan interés turístico o tengan carácter emblemático o simbólico para la ciudad.

ARTÍCULO 12. Medios de comunicación propios.

En los medios de comunicación (radio, revistas o boletines, etc.) cuya titularidad o gestión corresponda al Ayuntamiento de Pamplona se utilizarán los dos idiomas en la misma medida en los elementos de identificación del medio, titulares de página, fecha, secciones y la utilización del euskera supondrá aproximadamente el 20% del uso lingüístico total.

CAPÍTULO V. DEL PERSONAL Y EL FUNCIONAMIENTO INTERNO MUNICIPAL

ARTÍCULO 13. En la plantilla orgánica del Ayuntamiento se determinarán aquellos puestos de trabajo que precisen el conocimiento del euskera.

ARTÍCULO 14.

1. La Plantilla Orgánica del Ayuntamiento definirá en cada caso el grado de conocimiento del euskera de los puestos de trabajo a que se refiere el artículo anterior.
2. Lo establecido en el apartado anterior se llevará a cabo sin perjuicio de lo previsto en el apartado 3 del artículo 19 de la presente ordenanza.

ARTÍCULO 15.

- 1.- Los niveles de conocimiento de euskera que se deberán acreditar en los puestos bilingües serán, dependiendo de las características del puesto, B1, B2 o C1 de los establecidos en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.



2.- B1 ezagutza-maila bakarrik eskatzen ahalko da D edo E mailetakoa lanpostuetan, baldin eta haien eginkizunetan administrazio-zereginak nagusi ez badira.

3.- C2 edo horren baliokide den ezagutza-maila bakarrik eskatuko da A mailako lanpostuetan, baldin eta bere eginkizunek zuzeneko harremana badute hizkuntza arloko edukiekin.

16. ARTIKULUA.

Langileak hartzeko Udalak egiten dituen deialdietan, eta Ordenantza honen 13. artikulua ez bada aplikatu behar, euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen ahalko da eta balorazioa aukerakoa izanen da.

17. ARTIKULUA.

Euskararen balorazioa Europako Batasuneko beste edozein hizkuntza jakiteari ematen zaiona baino % 25 handiagoa izaten ahalko da, betiere lanpostuaren ezaugarriekin bat justifikatzen bada.

18. ARTIKULUA.

Aurreko bi artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, A, B eta C mailetan, aipatu balorazio irizpideak aplikatuz sortzen den gehieneko puntuazioa EGA tituluak edo horren baliokideek egiaztatzen duten hizkuntzaren jakite mailari dagokiona izanen da, euskararen kasuan, eta Hizkuntz Eskolako bosgarren mailarena, gainerako hizkuntzen kasuan. Gainerako mailetan, gehieneko puntuazioa zehaztuko da lanpostu bakoitzak dituen ezaugarrien arabera galdatuko den hizkuntzaren jakite maila kontuan harturik. Jakite maila hori euskara sustatzeko udal-departamentuak (itzultzaileak eta euskara koordinatzaileak) eta deialdi bakoitzerako osatuko den epaimahaiak zehaztuko dute. Euskaraz jakitearen inguruko balorazioa euskara sustatzeko Udal Zerbitzu Teknikoek egingen

2.- El nivel de conocimiento B1 podrá ser exigido únicamente en aquellos puestos bilingües de nivel D o E que no tengan entre sus funciones principales las administrativas.

3.- La exigencia del grado equivalente a C2 estará reservada a puestos de nivel A cuyas funciones tengan relación directa con contenidos de carácter lingüístico.

ARTÍCULO 16.

En las convocatorias de personal que el Ayuntamiento realice, a las que el artículo 13 no sea de aplicación, el conocimiento del euskera podrá ser valorado, como mérito, de manera opcional.

ARTÍCULO 17.

La valoración del euskera podrá ser un 25% mayor que la que se otorgue al conocimiento de cualquiera de los idiomas comunitarios, siempre que así se justifique atendiendo a las características del puesto de trabajo.

ARTÍCULO 18.

A efectos de lo establecido en los dos artículos anteriores, la puntuación máxima que se derive de la aplicación de los criterios de valoración citados se predica en los niveles A, B y C del nivel de conocimiento del idioma que acreditan los títulos EGA o equivalentes en el caso del euskera y quinto nivel de la Escuela de Idiomas para las demás lenguas. En los demás niveles se predica del grado de conocimiento cuya exigencia sea considerada para cada puesto de trabajo concreto en función de las características propias del mismo. Este grado de conocimiento será determinado por el Departamento municipal de promoción del euskera (personal de traducción y coordinación de euskara) y el tribunal constituido para la valoración de cada convocatoria. La valoración al conocimiento del euskera será otorgada por los Servicios Técnicos municipales de promoción del



dute, eta gainerako hizkuntzei dagokiena hizkuntza bakoitzari dagozkion irakasleek, Iruñeko Hizkuntz Eskolako partaideak direnek edo, horrelakorik izan ezean, behar bezala kreditaturiko irakasleek.

19. ARTIKULUA.

1.-Euskara ikasi nahi duten udal-langileei laguntza emanen zaie, halako moldez non Ordenantza honek ezarritako helburuak betetzea ziurtatuko den.

2.- Udalak hizkuntza-prestakuntza planak antolatuko ditu aipatu helburu horiek erdiesteko. Horietan aurreikusiko dira lanorduen murrizketak, dirulaguntzak eta izan daitezkeen ordezkapenak.

3.- Hizkuntza-prestakuntzako plan hauetan sarturiko langileei, nahiz Udalera sartzeko edo bertan daramaten bizitza profesionaleko edozein fasetarako euskaraz jakitea kontuan hartu zaienei, eskatzen ahal izanen zaie euren ezagupenak erabili eta azaltzeko Iruñeko Udal Administrazioan garatzen duten lanean.

VI. KAPITULUA. TOPONIMIA

20. ARTIKULUA. Udaleko organo eskudunak onetsiko du udal-mugartearen finkapen geografikoa, toponimikoa eta kartografikoa.

21. ARTIKULUA. Udaleko organo eskudunak, halaberean, hiriko kale-izendegia onetsiko du.

22. ARTIKULUA. Aurreko artikuluetan aurreikusitakoa betetzeko, Udaleko organo eskudunak txostenak eskatzen ahalko dizkie toponimia, kartografia, geografia edo/eta hizkuntzalaritzako adituei.

euskera, la correspondiente a los demás idiomas será otorgada por el profesorado de los idiomas correspondientes adscritos a la Escuela de Idiomas de Pamplona, o en su defecto por el profesorado debidamente acreditado.

ARTÍCULO 19.

1.- Se apoyará el aprendizaje del euskera entre el personal municipal que lo desee, de forma que se asegure el cumplimiento de los objetivos establecidos por esta ordenanza.

2.- El Ayuntamiento organizará planes de formación lingüística dirigidos a la consecución de los citados objetivos. En ellos se preverán reducciones de horario de trabajo, ayudas económicas y posibles substituciones.

3.- El personal municipal incluido en estos planes de formación lingüística, así como a quienes su conocimiento del euskera haya sido valorado para su ingreso en el Ayuntamiento o para cualquier fase de su vida profesional en el mismo, podrán ser requeridos para utilizar y aportar sus conocimientos en el trabajo que desarrollen en la Administración Municipal de Pamplona.

CAPÍTULO VI. DE LA TOPONIMIA

ARTÍCULO 20. El órgano municipal competente aprobará la fijación geográfica, toponímica y cartográfica del término municipal.

ARTÍCULO 21. El órgano municipal competente igualmente aprobará el callejero de la ciudad.

ARTÍCULO 22. A los efectos previstos en los artículos anteriores, el órgano municipal competente podrá recabar informes a especialistas en toponimia, cartografía, geografía y/o lingüística.



VII. KAPITULUA – EUSKARAREN SUSTAPENA

23. ARTIKULUA.

1.- Iruñeko Udalak ekimenak edo kanpainak sustatuko ditu euskara eta haren egoera soziolinguistikoaren inguruko informazio-maila handitu, euskara ikastea sustatu eta bere erabilera areagotzeko esparru guztietan.

2.- Iruñeko Udalak parte hartuko du Nafarroako Gobernuaren eta beste udal-entitateen ekimen eta kanpainetan.

3.- Besteak beste, helduen irakaskuntzarako matrikulazio kanpainetan, familia barruko euskararen transmisio kanpainan, eta euskarazko zein euskara sustatzeko aldizkarietan parte hartuko du.

24. ARTIKULUA. Iruñeko Udalak diru-kopuru bat esleitu du Udal Aurrekontuetan ikastaro trinkoen bidez eta barnetegi batean euskara ikasi nahi duten hiriko pertsona helduendako.

25. ARTIKULUA. Kultur ekintzak eta euskara sustatzeko jardueren antolamendua bultzatuko da, eta diruz lagunduko dira gizarte ekimenak eragindakoak.

26. ARTIKULUA. Haur Eskolak hedatzeko plan orokorraren barruan, euskarazko haur irakaskuntzarako eskaerak aintzat hartuko dira, ahal den modurik hoberenean bermatuz gurasoek euren seme-alabendako hizkuntz eredua hautatzeko duten eskubidea.

27. ARTIKULUA. Aldez aurretik azterlana eginik, eta horren barnean, besteak beste, zenbat irakasle dauden eta irakasle/ikasle ratioa zein den kontuan harturik, behar diren urratsak ematen hasiko dira, geroan musika-

CAPÍTULO VII. DEL FOMENTO DEL EUSKERA

ARTÍCULO 23.

1.- El Ayuntamiento de Pamplona promoverá iniciativas o campañas dirigidas a aumentar el nivel de información sobre temas referentes al euskera y su situación sociolingüística, al fomento de su aprendizaje y al aumento de su utilización en todos los ámbitos.

2.- El Ayuntamiento de Pamplona participará en iniciativas y campañas del Gobierno de Navarra y otras entidades municipales.

3.- A título enunciativo, participará en las campañas de matriculación para la enseñanza de personas adultas, campaña para la transmisión del euskera dentro de la familia, y en revistas en euskera o de promoción del mismo.

ARTÍCULO 24. El Ayuntamiento de Pamplona consignará en sus Presupuestos Municipales una cantidad económica destinada a personas adultas de la ciudad que deseen participar en cursos intensivos para el aprendizaje del euskera en régimen de internado.

ARTÍCULO 25. Se promoverá la organización de actividades culturales y de fomento del euskera y se ayudará económicamente a las promovidas por la iniciativa social.

ARTÍCULO 26. Dentro del plan general de ampliación de las Escuelas Infantiles, se atenderán las peticiones de enseñanza infantil en euskera garantizándose de la mejor manera posible los derechos de padres y madres a la libre elección de modelo lingüístico para sus hijos e hijas.

ARTÍCULO 27. Previo el oportuno estudio, que comprenderá, entre otros aspectos, la disponibilidad de profesorado y la ratio profesorado/alumnado, se irán dando los pasos precisos para posibilitar la futura oferta

hizkuntzaren irakaskuntzak euskarazko lerroa ere izan dezan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantzan “ele bitan” edo “bi hizkuntzetan” ageri denean, horrek adierazi nahi du informazioa bi hizkuntzetan emanen dela: gaztelaniaz eta euskaraz. Baina horrek ez du esan nahi, informazioa euskarri edo unitate bakar batean eman behar denik ezinbestean. Izan ere, idatziak, testuak, informazioak, agiriak, orriak, inprimakiak, adierazpide idatziak nahiz bertzelakoak eta orotarikoak euskarri, formatu, argitalpen edo unitate ezberdin, bereizi edo bananduetan egiten ahalko dira gaztelaniarako eta euskararako. Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki arrazoitua beharko da, formatu bikoitza erabili ahal izateko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Iruñeko Udalaren eskumena den hizkuntza-paisaia euskarak eta gaztelania presentzia berbera izanen dute, eta, horrenbestez, edukia, tamaina eta kontrastea berberak izanen dira bi hizkuntzetan, plaken, seinaleen, kartelen eta hizkuntza-paisaiaren gainontzeko elementuen errotulazioan.

de una línea de enseñanza del lenguaje musical en euskera.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Los términos “bilingüe”, en singular o plural, o “dos idiomas”, que se reflejan en la presente Ordenanza, conllevarán que la información se dará en ambas lenguas: castellano y euskera. Ello no implicará, necesariamente, que aquélla se lleve a cabo en un único soporte o unidad. En efecto, en cualquier caso, los redactados, textos, informaciones, documentos, impresos, formularios, expresiones escritas o de otra clase, etc., de cualquier tipo podrán llevarse a cabo en soportes, formatos, ediciones o unidades diferentes, separadas o independientes para el castellano y para el euskera. La aplicación del doble formato precisará acuerdo motivado de la Junta de Gobierno Local.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

El euskera y el castellano tendrán idéntica presencia en el paisaje lingüístico competencia del Ayuntamiento de Pamplona y, por tanto, serán idénticos en ambas lenguas el contenido, el tamaño y el contraste en la rotulación de placas de calles, señales, carteles y resto de elementos que componen el mencionado paisaje lingüístico.